

Fakultateko bibliotekak txat zerbitzu berria

2013/11/26

Mondragon Unibertsitateak txat zerbitzua jarri du abian fakultate guztietako biblioteketan. Komunikazio tresna berri horren helburua da harremanak estutzea bibliotekaren eta erabiltzaileen artean, eta konpontzea modu eroso eta azkarrean erabiltzaileen zalantzak bibliotekako zerbitzuak baliatzerakoan.


Txata abian jarrita sortzen da, beraz, komunikaziorako bide berri bat bibliotekarekin harremanetan jartzeko. Gogoan hartu behar da, bestela ere, badagoela bibliotekako arduradunekin hartu-emana izatea ohiko bideak erabilia: telefonoa, posta elektronikoa edo aurrez-aurrea.

Zerbitzu berriaren abantaila nagusia, baina, bat-batekotasuna da: beroi erabilia, zalantzak sortu orduko, eska daiteke bibliotekako arduradunei laguntasuna. Izan ere, bibliotekaren ordutegiaren barruan, edozein unetan dago aukera bertako langileekin harremanetan jarri eta galderak egiteko.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen kasuan, honako hau da txat zerbitzuaren ordutegian:

- Astelehenetik ostegunera: 08:00-20:00.
- Ostiraletan: 08:00-18:00

Txat zerbitzuak oso erabilera erraza du. Gainera, MUko bibliotekako zerbitzukoek sortu dute funtzionamenduaren gaineko bideo-tutorial laburra:



Txat zerbitzu berria dago HUHEZI Fakultateko bibliotekan.